



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Igandea
2008-03-09**

VIURTEA 1.382.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Festa eta aldarria bat eginik

TOLOSALDEA-LEITZALDEA Bazkariak, hitzaldiak, elkarretaratzeak,... egin zituzten Emakumearen Egunean

ALDARRIKAPENAK «Oraindik ere egiteko asko» dagoela nabarmendu zuten; gizonezko gutxik hartu du parte s



Tolosan, jende ugari bildu zen udaletxe parean. N. LATABURU

Arrasateko atentatua salatzen elkarretaratzeak

TOLOSALDEA ETak Carrasco zinegotzi ohia hil izana gaitzesteko elkartu ziren hainbat herritar s



Parte-hartzaile guztiak irteteko prest. A. IMAZ

Aitor Regillagak irabazi du Urkolaren omenezko duatloia s

Debekatua jolastea



» Iritzia

Iraitz Lizarraga

Aldeko herri batetako belardi batean. Hasera batean barregera etorri zitzaidan, eta halaxe komentatu genuen lagun artean: *Todo tipo de juegos* horren konnotazio posible guztiak aztertuz. Debeku honek ordea, debeku gehien moduan, beldurra eragin zidan. Jolasa debekatzeari gorrira da gero!

Herri txikitari bizigarenok gure kale eta plazetan estintzioan dauden espezie bat ikusteko parada

eta pribilegioa izaten dugu tarteka: Jolasean dabilzan haur koardrilen espeziea, alegia. Gero eta gutxiago dira, gero eta eskasagoa baita haurrak egunean zehar duen denbora libre; eskolatik atera ahala ingelesera joaten dira, gero igeriketara, partikularra, katekesira, eskulanetara, entrenamendura, antzerki tailerrera, korora... Ez nau harritzen Aktimelak behar izatea! Egunean zehar ez dute betarik lagunekin jolasean lasai aritzeko, pertsona heldu baten superbisiorik gabe. Haurraren heziketa prozesuan funtsezkoa da jolasa; harremanak, izaera, baloreak... garatzen dira jolasaren bitartez, baina pixkanaka funtsezko den elementu hau galtzen ari da.

Gainera, jolaserako espazioak gero eta eskasagoak dira; gure herriak ez daude jolaserako prestatuak. Parke politak (*mesedez ez*

zapaldu belarra kartela dutenak, noski), eskulturak, errotondak, aszensoreak. Baina parke gutxi, plaza eskasak, etab...

Haurren denbora libre apurra okupatzeko azken moda, jangela osteko ordubettxo horretan ekintza ezberdinetan apuntatzea da: antzerkia, eskulanak, musika... Honekin ez dut esan nahi jarduerak hauek guztiak haurraren heziketan funtsezkoak ez direnik, baina berezko eta natural naturala den jolasari garrantzia asko kentzen ari gara.

Jolasteko ohitura galtzen ari dira, ari gara (beno, guk aspaldi galdu genuen): antzerki irakasle bezala dudana esperientzia asko nabaritzen dut nik: haurrei libre jolatu dezaketean ariketa bat proposatuta, galdu egiten dira, ez dakite nondik jo eta mesedez eta faborez pautu gehiago emateko eskatzen didate: sinestezina;

askatasunean jolastea zailtasun bihurtu da.

Haurrak bakarrik "jolasten" ohituta daude. Indibidualtasuna; hauxe da gure gizartearen paradigma, eta egunerokotasunean hain simpleak iruditzen zaizkigun gauzetan izugarriko indarra du. Gizarteak euren kabuz funtzionatzen duten indibiduoak nahi ditu, inolako antolakuntzarako grinarik azaltzen ez dutenak, formazio ikaragarria eta milaka titulu izan arren euren burmuinean imajinaziorako batera tokirik utzi ez dutenak; ametsik gabeko pertsona grisak, jolasa *playstation* eta *game-boy*arekin identifikatzen dutenak.

Har dezagun behingogatik jolasa serio eta eman diezazigun dagoen belaunaldi berriei jolasteko aukera eta baita geure buruei ere, es baitakigu ondo zer galtzen dugun.

E Esanak



«Bertsoak ligatzeko balio du eta erabili izan ditut nik, mota guztietako emaitzekin»

«Sexu saioak bertso on batek bezalakoa izan behar du, hobe habanera zortziko txiki bat baino»

UNAI ELIZASU
Gazteulo (83. zenbakia)

S Soka motzean

«Leitzalarreko arbolak dira herriko txokorik politena»

AGUSTIN ARANBURU » Jubilatua

NAIARA GARZIA

Gaur zer gosaldu duzu?

Esnea, kolakaoarekin, ogia, gailetak eta ezti.

Non igaro dituzu azken oroporrak?

Murtzian eta Almerian.

Jaki gustukoena?

Banabarrak eta babak.

Urtaro bat?

Udazkena, ehiztaria bainaiz.

Herri edo hiri polit bat?

Leitza bera, nire gurasoak eta denak hemengoak ziren eta hortik dator kit soka.

Herriko txokorik politena?

Leitzalarreko arbolak dira herriko txokorik politena.

Bideoarekin aspalditik ibiltzen zara herriko kontuak eta grabatzen, ez?

Bai, 1972. urtean hasi nintzen gauzak grabatzen, orduan Super 8 bat erosi nuen.

Zer gauza grabatzen dituzu?

Apustuak grabatu izandu ditut, bai herrian, bai kanpoan, eta gero festak, inauteriak, baserrietako jendea... Lasarteri omenaldia egin ziotenenean ere grabazio bat egin nuen eta orain muntai bat egiten ari naiz.



N. GARZIA

E Eztabaida

info

Martxoak 9, Espainiako Gorteetarako Hauteskundeak. Zein emaitza espero dituzu gure eskualdeetan? Eta orokorrak?

■ «Uste dut ez direla emaitzak gehiegi aldatuko, hemen ez baitute hainbeste jarraipenik hauteskunde hauek». (Gorka)

■ «Nik uste dut EAJk irabaziko duela. Espainiako hauteskundee-tan boto util delakoak balio du, Gorteetan indar pixkat edukitzea. Horretarako beharrezkoa da ondo pentsatzea. Agian, ez diozu normalean honi emango botoa baina euskaldunak ordezkatu izan nahi badugu honi bozkatu behar diogu. Nik behintzat horrela egingo dut».

■ «Hauteskunde demokratikoak ez dira izango, hori hasteko, izan ere alderdi guztiek ezin izango dute aurkeztu. Hortik abiatuta, nik uste det eskualdean abstentzioa oso altua izango dela eta EAJK izango dituela boto gehien. Espainia mailan, esango nuke PSOEk

irabaziko duela, jendeak nahiago duelako bere *moderazioa* PPren politikara baino. Argi dago Euskal Herriarekiko duten jarrera biona iguala dela baina PSOEk politika soziala gehiago lantzen duela argi dago, edo behintzat jendeak hori ikusten du eta horregatik iruditzen zait jendeak gehiago joko duela partidoni bozkatzea» (Aitor).

■ «Azken hiru asteetan entzun ditugu inkestak, sondeak, tendentziak, debateak... Bi alderdi bakarririk daudela dirudi, bipartidismoa bultzatu duzue ere komunikabideek. Baina alderdi gehiago daude lanean eta hauek azaltzen egiten. Nire aldetik, balorazio bat egin beharko banu esango nuke aurrekoek bezala, EAJk irabaziko duela eskualdean eta Euskal Herrian. Eta Espainian berriz, PSOE izan daiteke irabazle, nahiz eta PPko 10 milioiak hor dauden. Jendea bozkatzera ez bada joaten azken hauek irabaziko dute, eurek boto emaila finkoak dituztelako, PPkoa beti izango da PPkoa». (Nerea)

■ «Nik ez dut sekula bozkatzeko eta oraingoan ere ez dut egingo. Bozkatzearen garrantziaren istorioarekin dator kidanari esango diot niri inorrek ez didala galdetu ea sistema hau gustuko duan Zergatik hartu behar dut parte orduan? Besteek nigitatik erabakitze?». ■ «Inorrek ez al du hitz egin behar atzo [herenegun] izandako atentatuaz? Aurretik baten batek esan du ez dela bidezkoa jende guztiak ezin parte hartu ahal izatea. Ados egon naiteke... baina bidezkoa al da pertsona bat hiltzea? Berak ere ez du eskubiderik izango bozkatzeko eta guztia desberdin pentsatzeagatik. Ez dago eskubiderik...».

Donostian dagoen enpresa batek KOMERTZIALA BEHAR DU Donostia aldean aritzeko

Erreferentzia: 08-IHK

Eskaintzen da:

- Egun erdiko kontratua.
- Soldata interesgarria, finako eta komisioek osatua.
- Beste lan komertzialekin bateragarria.

Eskatzen da:

- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Komertzial lanetan eskarmentua izatea.
- Gida baimena eta autoa izatea.

Curriculum Vitae zehatza bidali, martxoaren 18 baino lehen, gizabaliabideak@jarduna.net POSTA ELEKTRONIKORA. Ez ahaztu erreferentzia zehatzea.

Euskarazko Komunikazio Taldeak arduradunak behar ditu MARKETIN eta KUDEAKETA sailetarako (erref.: o8-ink)

Eskatzen da:

- Marketin eta Enpresa Kudeaketa arloko unibertsitate ikasketak.
- Kalkulu orriaren eta datu base programa informatikoen ezagutza.
- EGA edo balioidea den euskara maila.

Kontuan hartuko da:

- Marketin eta kudeaketa lanetan izandako eskarmentua.
- Talde gidaritzan esperientzia.
- Harremanetarako eta antolakuntzarako gaitasuna.

Kontuan hartuko da:

- Etorrizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Egun osoko lanpostua.
- Lantokia Andoainean.

Interesa dutenek bidali curriculum, martxoaren 19a baino lehen, erreferentzia zehatuz, helbide honetara: gizabaliabideak@jarduna.net

B Blogteka 

Martxoaren 15eko kontzertua ari da prestatzen Bandaa

Inauterien ondoren, entsaioekin hasi da Tolosako Musika Banda eta zinemamunduko bi doinu ezagun (Tom Sawyer eta Karibeko Piratak) eta 'Oregon' eta Luis Cobosen omenezko 'La zarzuela y el pasodoble' obrak ari da prestatzen. Obra hauek datorren martxoaren 15ean, larunbata, kontzertua eskainiko du.

Horrekin batera, sanjoanetan Oskorri musika talde ezagunarekin batera eskainiko duen kontzertu berezia ere ari da prestatzen Banda.

Tolosako musika banda

<http://www.tolosaldeko-hitza.info/blagogak/banda>

Tolosako Orfeoiaren Aste Santuko Kontzertua

Tolosako Orfeoiak W.A. Mozarten Requiem obra interpretatuko du, Aste Santuko kontzertuaren barruan, Tolosako Leidor Antzokian martxoaren 14an eta Iruñeako Aita Dominikoen elizan, martxoaren 16an, Iruñeako Orkestra Concertoarekin batera arituko dira, Ignacio Ruiz de Alegria maiusaren zuzendaritzapean, Kontzertuan hartuko dute parte: Amaia Arberas sopranoak, Iñigo Casali tenoreak, Gleisy Lovillo kontraltoak, Jose Bernardo Alva-

rez baritonoak eta Arkaitz Mendoz, organo jotzen.

W.A.Mozart konpositore austriarra mendealdeko musika klasikoko konpositore handienetako bat da aditu guztien iritiz. Requiem obra konposatzeko enkarua, Waisegg-Stuppach kondearena, modu anonimoan jaso zuen Mozartek. Baina bukatu baino lehen hil zen. Obraren ardura Eybler-ek hartu zuen arren, bere gaitasun faltagatik SÁsmayr-en eskuetara pasa zen. Introitus eta Kyrie delakoak izan ezik (biak Mozarten originalak), gainontzeko guztia apunte eta oharretan oinarriturik dago. Dies irae, Tuba mirum, Rex tremendae, Recordare, Confutatis eta Lacrimosa osatuta

zeuden etal bokal eta instrumentalak zirriborrotuta; Lacrimosa, aldiz, eten egiten zen "Qua resurget ex favilla"n; Ofertorion (Domine Jesu eta Hostias) trazatuta zegoen; Sanctus, Benedictus eta Agnus Dei falta ziren. Zirriborrotako mugimenduak bere ikasle Susmayeren aurrean kantatzen zituen Mozartek. Hortaz, esan daiteke bere obraren bukaera ez dela oso urruti ibiliko Mozartek berak aurreikusituen zuten hartatik.

Estreinaldia, Mozarten izenarekin, Gottfried van wieten-en ekimenez izan zen 1793ko urtarrilean, Vienako Jahn aretoan

Tolosako orfeoi

<http://www.tolosaldeko-hitza.info/blagogak/orfeoi>

Neguko barazkiak berpiztu dira azoka lasai batean

Azoka » Datozen asteetan udaberriko landareak azalduko dira; udaberriko barazkiak hazi egin ziren atzoko azokan.

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna lasai xamarra suertatu zen guztira. Euriak ez zuen asko lagundu bisitariei, eta askok izan ziren eguna ondo argitu arte azokara joateko itxaron zutenak.

Eskaintza ordea, lagunduta ikusi izan zen egun hauen euriagatik. Neguko barazki askok berpiztu egin ziren, eta udaberriko barazkiak, dagoeneko hasita daudenak, illarraren edo zainzuriaren kasu, bolumena hartzen hasi ziren.

Berdura plazan ere ikusi genuen jada mugimendua, batez ere apaingarriko landareen postuetan. Hantxe izan ziren udaberriko arbustoak eta konifera batzuk. Dirudenez, datozen asteetan hasiko dira udaberriko landareekin.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA Merk. Gares.

Landareak		
Landina	10,00	-
Zirklamena	2,20	5,00
Lobelia	4,50	-

BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak

Onddoa	28,00	-
--------	-------	---

Fruta

Errezil sagarra	0,8	8,00
Intxaurra	2,50	4,00

Gaztak

Ardigazta	14,00	18,00
-----------	-------	-------

Besteak

Artisau ogia	2,80	3,70
--------------	------	------

PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Fruta

Sagarra	2,00	3,00
---------	------	------

Besteak

Mermelada	3,00	3,60
-----------	------	------

G Gutunak

Galdaragileei buruzko zehaztapena

Atsegin ez irakurri genuen, Tolosako 2008ko Inauteriak zirela eta, argitaratu zenuten ale berezia. Argia, irakurterraza eta argazki zahar zein berriz jositia.

Dena den, bertan argitaratu zenuten artikulu baten gainean merezi du zehaztapen bat egitea. Artikulua Tolosako galdaragileei buruzkoa da, eta bertan plazaratzen diren hainbat datu ez direla zuzenak iruditzen zaigu. Esaterako, hauxe diozuean: «(...) eta arraroa dirudien arren, Tolosako lehen galdaragileak 1974. urtean ateraziren». Era berean, aurreraxeagoa hauxe diozue: «Galdaragileen aintzindarizat hartu dezakegu 1974. urtean Urdiña-Txikikoek presatautako ekintza». Hau dela eta, merezi du Juan Garmendia Larrañagak eta Francisco Arratibel Epeldek, Gure Txokoa elkartearentzako bere 75. urteurrenean idatzitako liburua 30. orrian azaltzen dena kontuan izatea:

«Tolosan hasi berria zen beste ekitaldi bat inauterien bezperako Kaldereroen konpartsa zen (...). Honela, gure elkarteak» (Gure Txokoa elkarteaz ari da) «festa xelebre hnen antolaketan buru belarri lagundu zuen, eta 1927. urtean



konpartsa jendetsu aurkeztu zuen. Hurrengo urteetan ere horrelaxe jarraituko zutela pentsatzen dugu, agian beste taldeekin batera».

Aipatutako liburura jotzen baduzue, Gure Txokoa elkarteak 1928ko galdaragileen konpartsa baten argazkia azaltzen da. Bitxikeria bezala, garai hartarako behinik-behin, ikusi ahal izango duzue aargazkian, Gure Txokoa elkarteak kaldereroen emakumezkoen ordezkariak agertzen dela. Era

berean, kaldereroetan haine zaguinak diren betiko abestiak abesteko, Gure Txokoa elkarteak prestatutako partiturak agertzen dira bertan. Beraz, eta liburua ere egileei jarraituz, galdaragileen festa aspalditik egiten zen Tolosan, eta Gure Txokoa elkarteak burubelarri parte hartu zuen festa honen antolakuntzan.

Dena den ez dugu honekin 1974. urtetik aurrera Urdiña-Txikikoek Galdaragileen festa antolatzeko egin dituen lanak eta merezimen-

duak gutxietsi nahi, inondik inora! Eskertzekoa da benetan elkarte honetako kideek urte hauetan egindako lana Galdaragileen festa antolatzeko orduan. Baina esku-titz honen bitartez, jakitera eman nahi dugu Galdaragileen festa 1927. urtean jadanik ospatzen zela Tolosako herrian, gerora desager-tu bazen ere (Urdiña Txikikoek berritua ezin hobeto antolatzeari ekin ziotenen arte).

Iñaki Olazabal. Gure Txokoa elkarteak lehendakaria.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Aitor Regillaga tolosarrak irabazi du VII. Duatloi Herrikoia

Tolosa » 36 partaideek lehenik korrika 2 km egin zituzten. Bizikletak ondoren 15 km eta azkenik berrero ere 1,5 km korrika.

ASIERIMAZ

Javier Urkolaren omenezko VII. Duatloi Herrikoia Aitor Regillaga tolosarrak irabazi zuen atzo 34 minutu eta 53 segundoko denborarekin. 24 segundora Jose Luis Zabala berrobitarra iritsi zen eta hirugarren postuan, Enrike Piedra billabonatarra, irabazlearengandik 27 segundotara.

Partaideak eta ibilbidea

Duatloi Herrikoian 36 kirolari elkartu ziren, denak gizonezkoak. Tolosako udaletxearen aurrean eman zen irteera 16:00etan. Antolatzaileek partaidetza handiagoa espero baldin bazuten ere, «lana ongi egin dela» azaldu zuten, ho-

rren ondorioz etorkizunari «itxaropenez» begiratzin diotela aipatu zuten.

Partaideek 2 kilometro egin zituzten korrika Alde Zaharraren barnean lehenik, ondoren 15 kilometro bizikleta gainean, Anoeta-Belate hiru aldiz hain zuzen ere. Amaieran Alde Zaharrean kilometro eta erdi ibili ziren korrika.

» SAILKAPENA

Javier Urkolaren omenezko VII. Duatloi Herrikoia

- | | |
|------------------------|--------------|
| 1. Aitor Regillaga | 34min.53seg. |
| 2. Jose Luis Zabala | 35:17 |
| 3. Enrike Piedra | 35:20 |
| 4. Iker Manso | 35:56 |
| 5. Joxe Mari Garmendia | 35:56 |
| 6. Haritz Aranzegi | 36:11 |
| 7. Alar Sebillano | 36:17 |
| 8. Aitor Azurmendi | 37:52 |
| 9. Joseba Elduainen | 38:07 |
| 10. Joxean Iraola | 38:09 |



Korrika egin ondoren, bizikletak hartu zituzten, ondoren berriz korri egiteko. A.I.



'Xebas'-en XXXI. urteurrena

IBARRA » Sebastian Goikoetxea, Xebas, Guardia Zibilak 1977. urteko martxoaren 8an hil zuen Ezkio-Itsason, Nikolas Mendizabal Zaharra, zaldibiarrekin batera. Senide, lagun eta herritarrak Xebas omendu zuten

atzokoan. Lehendabizi hilerrian bildu ziren lore eskaintza egiteko. Ondoren, Arane iturrian omenaldia egin zioten Josetxo eta Xebas ibartarrei, euren omenezko monolitoaren aurreran. ASIERIMAZ



ETAren azken atentatua gaitzetsiz

TOLOSA » Eudelek deituta hainbat udaletxetan elkarretaratzeak egin zituzten atzo 12:00etan, ETAren azken atentatua gaitzesteko. Irudian Tolosako udaletxearen aurrekaldea ikusi daiteke, non 100 lagun inguru bildu

ziren. Bertan herritarrek eta alderdi politikoetako ordezkariak bat egin zuten. Hauteskunde kanpainako azken egunean hil zuen ET Ak Arrasateko PSE-EEren zinegotzi ohia. N.LATABURU



Biga enkantean 'ixko' ugari

TOLOSA » Emakumearen Egunean biga eta behi enkantea egin zen San Esteban auzoko ferialekuan. Biga enkantean ixko ugari dio esaerak eta atzokoan errealitate hori ikus zitekeen ferialekuan. 39 lau hanka dun,

gehienak bigak, nahiz eta behiak ere aurkeztu ziren enkantean. Ganaduzaleak 80 bat, nahiz eta eskuetan txartela zutenak gutxiago izan. Bat, bi eta hiru esan orduko 39ak salduak edo erosiak izan ziren. ASIERIMAZ

0-16 urte

uzturpe

ikastetxe bat baino gehiago

haur eskola
ludoteka
ikastola

martxoaren 31tik apirilaren 11era
matrikulatze kanpaina zabalik
del lezaguazu eta bisita antolatuko dugu

003468 12:30ean | 14 30ean | 18 00tara

lapena 3, 20400 Barea | Tel. 945/1709 | Fax. 945/1502 | e-posta: ibarra@hachoa.net

Bazkariak, hitzaldiak, elkarretaratzeak, antzerkiak eta beste izan dira egun hauetan Emakumearen Eguna ospatzeko; ekitaldi gehienetan gizonetakoek ez dute parte hartu.

Festapean aldarrikatuz

ESTI EZEIZA

Zoritxarrez, XXI. mendean eta «gizarte aurreratu» batean bizi baldin bagara ere, oraindik ere Emakumearen Eguna ospatzen jarraitzen dugu. Urte hauetan guztietan lan handia egin bada ere, oraindik asko baitago egiteko. Atzokoan festa giroan bazen ere aldarrikapenak egiteko eguna zen. Izan ere, itxuraz, berdintasuna nagusi den jendarte batean bizi gara, baina martxoaren 8a zein egun den gogoratzeko beharra dugu oraindik. Data berezi honek, emakumearen benetako egoeraren inguruko hausnarketak egiteko balio izaten du normalean. Baina ahaztu egiten zaigu gehienoi, urtean behin ezetz, urteko 365 egunetan errekonozitu behar dela emakumearen lana eta tokia. Egundean gogoratzeak ez duela balio, gainontzekoetan ez bada ezer egiten. Oraindik ere, egunero ematen baitira emakumeen aurkako erasoak eta goi karguetan, emaku-

mezkoeen presentzia ezerezaren hurrengo baita. Beraz martxoaren 8aren pareko izan behar dute gainontzeko egunek.

Herri guztietan ekitaldiak

Mota guztietako ekitaldiak egin dira eskualdean, Emakumearen eguna dela eta. Herri gehienetan atzo izan ziren ospakizunak nahiz eta batzuk aurreratu. Tolosan esaterako, landa inguruetako emakumeak izan ziren protagonista, eta hauek ekarritako tresna nahiz argazkiak jarri zituzten ikusgai Leidor antzokian. Gainera, erakusketak, datorren aste guztian ere bertan izango da ikusgai. Afari eta bazkariak ere ez ziren falta izan atzokian, horren adibide, Alegiko emakumeen bazkaria. Villabonan berri elkarretaratzea egin zuten, eta baita Tolosan ere. Altzon eta Berastegin berri hitzaldiak izan zituzten. Leitzan, besteak beste, bizikleta martxa aldarrikatzailea egin zuten.



Altzon, Bilgune Feministak antolatuta hitzaldia izan zen. HITZA



Tolosan erakusketak izan zen ikusgai, Villabonan elkarretaratzea egin zuten eta Berastegin hitzaldia eman. HITZA



Alegian urteroko ohiturari jarraituz bazkaria egin zuten Eizmendin. E. EZEIZA

KONPARTSA HERRIKOIA Inude eta Artzainak

ENTSEGUA Astelehenetan (Martxoak 31n lehen entsegua) 20:30etatik 21:30etara
Billabonako Ikastolako ganbaran

ENTSEGUA Asteartea (20:30-22:30) eta Ostirala (18:30-22:30)
Billabonako Ikastolako ganbaran
harremanak@oinkari.net - Tel. 660 139 380



Uztailak 27,
igandea
BILLABONA

dantzariak
musikariak
pertsoneiak
danborrada

hitza Gazte nahiz heldu, denok batera, egun eder bat igarotzera animatzen zaituztegu!

Argazki Lehiaketa egingo du HITZak Aste Santuetako oporraldian ateratako argazkiekin; irabazleak Aduana balnearioan asteburua eskuratuko du, Bidaide bidaia agentziaren eskutik.

Ikusmenaren gozagarri

ERREDAKZIOA

Oporraldia gerturatzen ari da eta ohiturari eutsiz, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK argazki lehiaketa antolatu du. Edizio honekin zazpigarrenera heldu da lehiaketa. Urte urte sendotu egin da lehiaketa eta ehunka argazki jasotzen ditugu. Opari interesgarriak eskuratu nahi dituenak, beraz, ez dezala argazki makina etxean ahaztu.

Sei egunek osatuko dute aurtengo oporraldia. Batzuk, egun hauek aprobetxatuz oporraldi luzeagoa egiten dute. Diren egunak direla ere, nahikoa denbora txango politak egiteko: Euskal Herrian, atzerrian, mendian, kostaldean... Edozein txoko da egoki eta edozein une da egoki argazki eder hori topatzeko.

Norberaren esku dago gaia, bakoitzarentzako esanguratsua, ikusgarri edo berezia den txokoa, unea edo irudia izan daiteke txapelketako irabazle. Argazkiek bete behar duten baldintza bakarra, Aste Santu hauetan ateratakoak izatea da. Bestalde lehiakide bakoitzak argazki bakarra aurkeztu ahal izango du.

Bidaide bidaia agentziaren eskutik, sari interesgarria

Villabonako Bidaide bidaia agentziaren eskutik, zazpigarren edizio honetako irabazleak bi lagunentzako Orduñako (Bizkaia) Aduana balnearioan asteburua igarotzeko aukera izango du, mantenu erdian. Honekin batera, bertan tratamenduak jasoko ditu irabazleak: Piszina termal zirkuitoa, aroma dutxa bat, kromoterapia sauna bat, lodo enbolutura bat eta yogur kremaz masaia bat.

Bigarren sailkatuak ere jasoko

du sari interesgarriak. Hain zuzen ere, Berrobiko Iriarte jatetxean bi lagunentzako afaria.

Halaber, parte-hartzaile eta boto-emale guztien artean HITZaren materiala zozketatuko da.

Parte hartzeko, aise

Argazkiak bidaltzeko posta elektronikoz (tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info), posta arrunta erabiliz (Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa, 20.400 helbidera bidali eta zehaztu Argazki Lehiaketarako dela) edota HITZaren egoitzetara (lehen aipatutakoa edo Leitzakoa) ekarri egin ahalgo dute parte-hartzaileek.

Jasotako argazkiak egunkarian argitaratuz joango dira martxoaren 25etik aurrera. Hauetatik batzuk publikatzeko demorarik ez balu emango ere, horrek ez du esan nahi lehiaketan sartzen ez direnik. Guztiak interneten izango dira ikusgai. Jasotako guztiak izango baitute irabazteko aukera. Argazkiak lehiaketara bidaltzeko azken eguna apirilaren 10a izango da.

HITZak aukeratutako epaimahaiak ebazten duenarekin, zortzi finalisten argazkiak argitaratuko dira apirilaren 13, igandarekin. Astebete beranduago, hileren 20an, hain zuzen ere, lehen bi sailkatuak argitaratuko ditugu.

Hainbat baldintza

HITZaren irakurle guztiak dute aukera lehiaketan parte hartzeko, ez dute zertan harpidedun izan. Haatik, bozka eman nahi dutenek harpidedun izan beharko dute eta harpidedun bakoitzeko bozka bakarra onartuko da. Hori dela-eta harpidedun kodea eskatu da bozkarrekin batera.



Pasa den udan Hitza Argazki Lehiaketara heldu ziren bi argazki: goian, India iparraldeko argazkia bidali zuen Idoia Lahaldalgak; behean, Nerea Lopetegik Norvegiako fiordoetan ateratako argazkia, lehen saria irabazi zuen.

» VII. HITZA ARGAZKI LEHIAKETA

Epeak

■ Argazkiak hileren 25etik aurrera bidal daitezke, eta apirilaren 10a izango da azken eguna (azken hau barne).

■ Apirilaren 13an Hitzaren epaimahaiak aukeratutako zortzi argazki finalista argitaratuko dira.

■ Apirilaren 20an irakurleek aukeratutako argazki irabazlea argitaratuko da. Harpidedunek bakarrik bozka dezakete. Bozkatzeko epea, berriz, hil honen 17an amaituko da.

■ Bozkatzeko, telefonoz (943

655695) edo mailez (tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info) egin daiteke. Bozkatzerako unean harpidedun kodea zehaztu beharko da.

Baldintzak

■ Aurkeztutako argazkiek Aste Santuetako oporraldikoak behar dute izan.

■ Argazkiak paperean, diapositiban eta formatu digitalean onartzen ditugu.

■ Bidaltzeko aukerak: posta elektronikoz ([\[kohitza.info\]\(mailto:kohitza.info\)\) edota posta arruntez egin daiteke \(Araba etorbidea 5, behea. 20.400 Tolosa edota Herriko plaza 1, Leitza\).](mailto:tolosaldean@tolosalde-</p>
</div>
<div data-bbox=)

■ Argazki digitalek, gutxienez, ez zaugarri hauek izan behar dituzte: 20 zentimetroko zabalera eta 300eko bereizmena.

■ Jarri behar diren datuak: egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa. Horrez gain, argazkia non eta noiz egin den, eta zer ikusten den adierazi beharko da.

■ Jasotako argazkiak artxiiboan

gordeko ditugu, eta Hitzak behar dituzenean argitaratu ahal izango ditu.

■ Jasotzen diren argazki guztiak sartuko dira lehiaketan, baina Hitzak jasotako lehen 50 argazkiak argitaratuko ditu.

■ Argazki guztiak webgunean izango dituzue ikusgai.

■ Parte-hartzaile bakoitzak argazki bakarra bidali ahal izango du.

Sariak

■ Irabazleak Aduana balnearioan

(Orduñan, Bizkaian), bi lagunentzako asteburua irabaziko du, pen-tsiro erdian eta honoko tratamenduekin: Piszina termal zirkuitoa. Aroma dutxa bat. Kromoterapia sauna bat. Lodo enbolutura bat eta Yogur kremaz masaia bat.

■ Bigarren sailkatuentzat, Berrobiko Iriarte jatetxean bi lagunentzako afaria izango da

■ Parte-hartzaile guztien artean HITZako produktuak zozketatuko ditugu. Baita botoa ematen dutenen artean ere.

«Bai mutiletan, bai eta nesketan ere, adin bakoitzean talde bat izatea da gure helburua»

JON GONZALEZ » TAKEko entrenatzailea

Saskibaloia » Martxoaren 16an egingo dituzten saskibaloitza teknifikazioarako jardunaldien prestatzailea da Jon Gonzalez.

INIGO TERRADILLOS

Datorren igandean, martxoaren 16an, 10:00etatik 12:00etara dute hitzordua saskibaloia gustatzen zaien Tolosaldeko gazteek. Izan ere, Usabal kiroldegian saskibaloitza teknifikazioarako jardunaldia antolatuko dute. Tolosaldeko zentro guztietako neska-mutilei luzatu die deialdia TAKEk. Prestakuntza lanak bertako entrenatzaile gaituek egingo dituzte. Horieta dago bat da Jon Gonzalez (Tolosa, 1986), jardunaldi hauen koordinatzailea.

Zertan datza jardunaldiak eta nori zuzendua dago?

Tolosaldeko ikastetxe guztiei egin diegu deialdia, bertan parte har-



Jon Gonzalez infantil mailako taldeko jokalariekin. HITZA

zaten. Mutilen kasuan, datorren urtean infantil mailan ariko direnentzat dago zabalik, hau da, 1996. urtean jaiotakoentzat. Nesken kasuan, berriz, infantil eta kadete mailatan jokatu dutenak daude deituta, hau da, 1993, 1994, 1995 eta 1996 urteetan jaiotakoak.

Zein da jardunaldi hauen helburua?

Gazteak saskibaloira gerturatu nahi ditugu, eta ikastetxeetan egingo dutena sakondu nahi dugu jardunaldi hauen bidez. Gero, gustura aritu badira, eta aurrera egin nahi badute, datuak hartzen dizkiegu hurrengo urteko denboraldiari begira. Teknifikazio jardunaldien lehen eguna izango da martxoaren 16an, eta hurrengo apirilean egingo dugu, eta guztia ondo ateratzen bada hirugarren bat ere egin nahiko genuke maiatza aldera edo.

TAKEren barruan zein da zure lana?

Infantil eta kadete mailako entrenatzaile naiz. Azken batean seniorrak ez diren taldeak koordinatzen ditut, eta jardunaldi hauek ere prestatzen ditut.

Gazte asko hurbiltzea jardunaldietara espero al duzue?

Hori nahi dugu behintzat. Pasa den urtean 45 lagun izan genituen, eta horietatik gehienak saskibaloitza klubean ari dira jolasten egun, beraz, gustura aritu ziren seinale. Batez ere, neska gerturatzea nahi eta espero dugu, izan ere, nesken bitartean, infantil eta kadeteena, eta teknifikazio jardunaldietan izaten dugun harreraren arabera kopuru hori gehitzea gustatuko litzaiguke.

Zenbat taldek osatzen dute gaur egun klubak?

Denera 9 talde ditugu aurten, eta horietatik bi dira neskenak. Datorren urtean lortuko dugu mutilen adin bakoitzerako talde bat izatea, eta hori bera gustatuko litzaiguke nesketan ere gertatzea.

Nola ikusten duzu saskibaloia eragoera Tolosan?

Kluba asko hazi da azken 5 urteetan, eta irteke urtera gorantz doala esan daiteke. Gero eta talde gehiago ditugu, eta entrenatzaileak ere baditugu. Jendea lan egiteko gogotsu dago, eta hori nabari da.

Gazteria sailaren eskutik, ikastaro ugari dituzte aukeran gazteak

Kultura » Denera zazpi ikastaro desberdin antolatuko dituzte. Izen emateko aukera zabalik dago dagoeneko.

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Udaleko Gazteria sailak gazteei zuzenduriko hainbat ikastaro antolatuko ditu. Izena eman nahi dutenek Gazte informazio bulegoan egin ahalko dute, gazteria@tolosakoudala.net helbidera idatziz, edota 943 670 383 telefono zenbakira deituta.

Makillaje ikastaroa

■ **Eguna eta ordua.** Asteazkenean, 18:30etik 20:30era.

■ **Lekua.** Kultur Etxean (Topagunean).

■ **Taldea.** 10 pertsonakoa.

■ **Hasiera.** Jende askok dagoeneko izena eman duenez, 2 ikastaro egingo dituzte. Lehena martxoaren 26an hasiko da (6 saio), eta bigarrena maiatzaren 14an (6 saio).

■ **Prezioa.** 10 euro.

Txalaparta ikastaroa

■ **Eguna eta ordua.** Asteartean, 15:00etatik 21:00etara.

■ **Lekua.** Kultur Etxean

(Topagunean).



Makillaje eta aromaterapia eta sendabelarren ikastaroa izango dira, besteak beste, eskainiko dituztenak. NL/IA.



■ **Taldea.** Ordu bakoitzean lau pertsonaz osaturiko taldeak izango dira.

■ **Hasiera.** Martxoaren 4an hasiko da. 15 saio izango dira denera.

Salsa-Merengue

■ **Eguna eta ordua.** Astelehenean, 19:30etik 21:30era.

■ **Lekua.** Kultur Etxean (Topagunean).

■ **Taldea.** 30 pertsonakoa.

■ **Hasiera.** Dagoeneko hasiak dira ikastaroarekin, martxoaren 3an hain zuzen ere. 15 saio izango ditu guztira ikastaro honek.

Jendaurrean hitz egiteko teknikak

■ **Eguna eta ordua.** Astelehenean, 19:00etatik 21:00etara.

■ **Lekua.** Kultur Etxean.

■ **Taldea.** 15 pertsonakoa.

■ **Hasiera.** Martxoaren 31n hasiko da. Guztira 12 saio izango dira.

■ **Prezioa.** 10 euro ordaindu beharko dira.

Aromaterapia eta sendabelarrak

■ **Eguna eta ordua.** Asteazkenean, 19:00etatik 21:00etara.

■ **Lekua.** Kultur Etxean.

■ **Taldea.** 12 pertsonakoa.

■ **Hasiera.** Martxoaren 26an. 13 saio izango dira denera.

■ **Prezioa.** 10 euro.

Orratz lanak (josten ikasteko)

■ **Eguna eta ordua.** Ostegunetan, 19:00etatik 20:30era.

■ **Lekua.** Kultur Etxean.

■ **Taldea.** 12 pertsonakoa.

Materiala norberak eman beharko du.

■ **Hasiera.** Apirilaren 3an. 12 saio izango dira denera.

■ **Prezioa.** 10 euro.

Komikigintza

■ **Eguna eta ordua.** Ostegunetan, 18:00etatik 19:30era.

■ **Lekua.** Errotan (Haur

liburutegian).

■ **Taldea.** 12 pertsonakoa.

Materiala norberak eman beharko du.

■ **Hasiera.** Apirilaren 3an. 12 saio izango dira denera.

■ **Prezioa.** 10 euro.



10°
7°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	10°
HOTZENA	7°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Kirolak

- **Tolosa.** Emakumezkoen Gornazko Paletako 1. DV Saria. Beoti-barren, 11:30ean.
- **Ibarra.** WingTsun ikastaroa apirilaren 2tik ekainaren 23ra, astelehen eta asteazkenetan 20:30ean. Izen-ematea, kiroldegian.
- **Villabona.** Aizkardiren 40. Ibilaldia, 30ean. Bi ibilbide Leitza zehar: hamar ordukoa (43 km) eta 5 ordu eta erdikoa (23,5 km). Izen-ematea, www.aizkardi.com, elkarrean edo 649717182 telefono zenbakian egin daiteke.
- **Tolosaldea.** Aurrera-Saiazeokoen Berria Txapelketako final-laurdenetan: 10:30ean Urrietako frontoian, Uharteren aurka.

Kultur asteak

- **Anoeta.** Xake txapelketa izango da kiroldegian 10:30etik 12:30eran eta 15:30etik 17:30era.

Zinema

- **Tolosa.** XXY filma emango dute Leidor aretoan, gaur 19:30ean eta 22:00etan eta bihar 20:30ean.

» GAURDIAKO FARMAZIAK GAUR

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1.943 673649.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Iruztun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

BIHAR

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2.943 654610.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Odei Jauregi Zaldua (Tolosa). Gaur 2 urte. Zorionak aitaxo, amatxo eta familiaren partetik.



'Eskerrik asko' goian eta behealdean

TOLOSA ■ Iruran eraikitzen ari diren eraikin berriak, aurreko astean Pirritx eta Porrotx pailazoan emanaldia aurkeztu zuten. Astebete inguru egon dira beraz txikiak bi pailazo eta euren lagunak ikusteko gogoari ezin eutsiz. *Eskerrik asko* ekitaldia izan zen ikusgai atzokoan Tolosako Leidor antzokian. Bi saio egin zituzten pailazok, 17:00etan eta 19:00etan, eta

bietan antzokia leporaino betetzea lortu zuten. Antolatzaileen hitzetan jendetsua eta ezustekoz bete izan zen emanaldia. KMK-08ren aldetik, eskerrak eman nahi izan zizkien bertaratu ziren guztiei, eta era berean, «Kilometroak bultzatuz gure ilusioa egia bihurtzen laguntzen ari zareten guztioi. Aupa zuek!». ASIER IMAZ

Euskal Herriko errepide mapa

- Euskarazko toponimia
- Bide sare berriak
- Bidaldiak, kilometroak zehazturik
- Herrien zerrenda
- Euskal Herriko hiriburuaren gune turistikoaren plano eta kale izendegi osoak
- Mendi zerrenda

ESKALA 1:200.000
(1 cm=2 km)

Eguneratua!

Martxoaren **8,9** eta **10**ean zure kioskoan

berria + 5,95€

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**

martxoaren 12an

herri informazioaren
leihoa
zabaltzera goaz